

2021 / 2022 ikasturtea

## **LEHEN SOROSPENAK: LH 5-6. MAILAKO IKASLEENTZAKO OSASUN-HEZKUNTZA PROGRAMA**

Ainara Aranburu Curiel



## **LABURPENA:**

**Sarrera:** Bihotz-Biriketako Gelditzea (BBG) bihotzaren aktibitate mekanikoaren edo/eta berezko arnasketaren bat-bateko etetea da. Gaur egun, ospitalez kanpoko BBG osasun publikoko arazo bilakatu da, heriotza eragile nagusienetarikoa baita mundu mailan. Heriotza ugari eragiteaz gain, beste hainbat ondorio kaltegarri ere ekar ditzake, besteak beste, lesio neurologikoak, ondorio psikologikoak (esate baterako, antsietatea, depresioa eta TOEN), ekonomikoak eta sozio-familiarrak. Lekukoek Bihotz-Biriketako Bizkortzea (BBB) gauzatuz gero bizirauteko aukerak bikoiztu edota laukoiztu egin daitezkeela frogatu da, baina zoritxarrez lekukoaren interbentzio-tasa oso baxua da. Horregatik, BBGen biziraupen-tasa hobetzeko ezinbestekoa da populazioari lehen sorospenak gauzatzen irakastea, eskoletatik hasiz. Horrez gain, BBGen tasa murrizteko, garrantzitsua da BBG sortzaileak izan daitezkeen egoerei aurre egiteko lehen sorospenak ere irakastea.

**Helburua:** Udarregi ikastolako LH 5-6. mailako ikasleei lehen sorospenak irakasteko Osasun-Hezkuntza Programa bat diseinatzea.

**Metodologia:** Proiektu hau jorratu ahal izateko gaiaren inguruko bilaketa bibliografikoa gauzatu da datu-base desberdinetan, hala nola, PubMed, BVS eta Dialnet. Horrez gain, web-orri desberdinak eta liburu bat ere erabili dira.

**Plangintza:** Xede-taldeak lehen sorospenen inguruko ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak eskuratzeko metodologia eta teknika desberdinak erabiltzen dituzten 4 saioz osatutako Osasun-Hezkuntza Programa bat proposatu da. Bestalde, ezarritako helburuak lortu diren aztertzeko zenbait ebaluazio tresna sortu dira.

**Ekarpen pertsonala:** Hezkuntza politikak aldatu behar direla uste da, eskoletan lehen sorospenak derrigorrezko irakasgai bihurtuz; gaur egun Euskal Herrian eta Espainian utopia hutsa dena.

**Hitz gakoak:** haur, eskola, lehen sorospenak, Bihotz-Biriketako Bizkortzea, osasun-hezkuntza.



## AURKIBIDEA:

<b>1. SARRERA</b> .....	<b>1</b>
<b>1.1. Definizioak</b> .....	<b>1</b>
<b>1.2. Osasun-hezkuntza proiektuaren justifikazioa</b> .....	<b>1</b>
1.2.1. Intentsitatea edo tamaina.....	1
1.2.2. Garrantzia.....	2
1.2.3. Urrakortasuna.....	3
1.2.4. Kostua .....	4
<b>1.3. Arrisku-faktoreen analisia</b> .....	<b>5</b>
<b>2. HELBURUAK</b> .....	<b>5</b>
<b>2.1. Helburu nagusia</b> .....	<b>5</b>
<b>2.2. Bigarren mailako helburuak</b> .....	<b>5</b>
<b>3. METODOLOGIA</b> .....	<b>6</b>
<b>4. PLANGINTZA</b> .....	<b>8</b>
<b>4.1. Xede-taldearen aukeraketa eta justifikazioa</b> .....	<b>8</b>
4.1.1. Xede-taldearen ezagutzen, jarrerren, gaitasunen eta itzaropenen identifikazioa.....	9
<b>4.2. Xede-taldeak lortu behar dituen helburu pedagogikoak</b> .....	<b>10</b>
4.2.1. Orokorra .....	10
4.2.2. Zehatzak.....	10
<b>4.3. Hezkuntza-edukiak eta jardueren programazioa</b> .....	<b>12</b>
4.3.1. 1.saioa.....	12
4.3.2. 2.saioa.....	14
4.3.3. 3.saioa.....	16
4.3.4. 4.saioa.....	18
<b>4.4. Ebaluazioaren plangintza</b> .....	<b>18</b>
4.4.1. Proiektuaren emaitzen ebaluazioa .....	18
4.4.2. Proiektuaren prozeduraren ebaluazioa .....	19
4.4.3. Proiektuaren egituraren eta baliabideen ebaluazioa .....	19

<b>5. EKARPEN PERTSONALA.....</b>	<b>19</b>
<b>6. BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>21</b>
<b>7. ERANSKINAK.....</b>	<b>25</b>
I. ERANSKINA: datu-baseetako artikuluen laburpen taula urtearen eta ebidentzia mailaren arabera ordenatuta .....	25
II. ERANSKINA: PubMed datu-baseko bilaketa-katearen bilakaera eta lortutako emaitzen taula .....	41
III. ERANSKINA: BVS datu-baseko bilaketa-katearen bilakaera eta lortutako emaitzen taula .....	42
IV. ERANSKINA: Dialnet datu-baseko bilaketa-katearen bilakaera eta lortutako emaitzen taula .....	43
V. ERANSKINA: datu-baseetako artikuluen fluxu-diagrama .....	44
VI. ERANSKINA: xede-taldearen ezagutzak, gaitasunak eta jarrerak ebaluatzeko galdetegia (interbentzioaren aurretik, ondoren eta 6 hilabetetara) .....	45
VII. ERANSKINA: OHezP-ren saioek ikasleen ordutegian izango duten eragina adierazten duen taula.....	49
VIII. ERANSKINA: 1. gaiko edukien <i>Power Point</i> -a .....	49
IX. ERANSKINA: “FOTOPALABRA” jokoaren BBGren arrisku-faktoreen eta ondorioen irudiak .....	54
X. ERANSKINA: biziraupen-katearen jolasa .....	59
XI. ERANSKINA: anafilaxiaren inguruko kasua: istorio laburra.....	60
XII. ERANSKINA: kahoot: 1 eta 2. saioen errepassoa.....	61
XIII. ERANSKINA: 7. gaiko edukien <i>Power Point</i> -a .....	65
XIV. ERANSKINA: 9. gaiko edukien <i>Power Point</i> -a .....	69
XV. ERANSKINA: kahoot: 3. saioaren errepassoa .....	71
XVI. ERANSKINA: antzara-jokoa .....	75
XVII. ERANSKINA: hipogluzemia, asma-krisia, anafilaxia eta hemorragien aurrean nola jokatu ebaluatzeko errubrika.....	82
XVIII. ERANSKINA: BBB eta SAJ ebaluatzeko errubrika.....	83
XIX. ERANSKINA: KDAREN erabilera ebaluatzeko errubrika.....	84
XX. ERANSKINA: Heimlich maniobra ebaluatzeko errubrika.....	84

XXI.ERANSKINA: Xede-taldeak OHezP-ren prozesua eta egitura/baliabideak ebaluatzeko galdetegia.....	85
XXII. ERANSKINA: Osasun-agenteeek OHezP-ren prozesua eta egitura/baliabideak ebaluatzeko galdetegia.....	87

**TAULEN AURKIBIDEA:**

1. <b>taula:</b> EAEn bihotz-gelditzeek eragindako heriotzak (2016-2020) .....	2
2. <b>taula:</b> BBGen arrisku-faktoreak edo eragileak .....	5
3. <b>taula:</b> PIO egitura jarraituz proposatutako deskriptoreak eta sinonimoak .....	6
4. <b>taula:</b> behin-betiko bilaketa-katea eta lortutako emaitzak .....	7
5. <b>taula:</b> 1. saioaren antolaketa .....	13
6. <b>taula:</b> 2. saioaren antolaketa .....	15
7. <b>taula:</b> 3. saioaren antolaketa .....	17
8. <b>taula:</b> 4. saioaren antolaketa .....	18





## **LABURDURAK:**

- **AEB:** Ameriketako Estatu Batuak
- **AGD:** Gipuzkoako Diabetes Elkarte
- **AHA:** American Heart Association
- **BBB:** Bihotz-Biriketako Bizkortzea
- **BBG:** Bihotz-Biriketako Gelditzea
- **BGBK:** Biriketako Gaixotasun Buxatzaile Kronikoa
- **CERC:** Consejo Español de Resucitación Cardiopulmonar
- **EAE:** Euskal Autonomia Erkidegoa
- **EHU:** Euskal Herriko Unibertsitatea
- **ERC:** European Resuscitation Council
- **EuPSF:** European Patient Safety Foundation
- **GAAB:** Gorputz Arrotzak Amasbideetan Eragindako Buxadura
- **GMI:** Gorputz-Masaren Indizea
- **ILCOR:** International Liaison Committee on Resuscitation
- **INE:** Instituto Nacional de Estadística
- **KDA:** Kanpoko Desfibriladore Automatikoa
- **LH:** Lehen Hezkuntza
- **MIA:** Miokardioko Infartu Akutua
- **OBE:** Oinarrizko Bizi-Euskarria
- **OHezP:** Osasun-Hezkuntza Programa
- **OME:** Osasunaren Munduko Erakundea
- **SAJ:** Segurtasuneko Albo-Jarrera
- **TOEN:** Trauma Osteko Estresaren Nahasmendua
- **WFSA:** World Federation of Societies of Anaesthesiologists



## 1. SARRERA

### 1.1. Definizioak

**Bihotz-Biriketako Gelditzea (BBG)** bihotzaren aktibitate mekanikoaren edota berezko arnasketaren bat-bateko etetea da (1, 2); konorte, pultsu eta arnasketa gabezia eragiten dituena (2). BBG hainbat kausa desberdinengatik gerta liteke (aurrerago landuko direnak) eta baita edozein tokitan ere, baina kasu gehienak ospitalez kanpo gertatu ohi dira (1).

BBG baten aurrean bihotzaren edota arnasketaren aktibitatea berreskuratzera bideratutako ekintza multzoari **Bihotz-Biriketako Bizkortzea (BBB)** deritza (1, 2). BBBren helburu nagusia odola gorputzeko organo nagusienetara (batik bat, garunera) iristea eta gelditzea jasan duen pertsona oxigenatzea dira, besteak beste, lesio neurologikoak ekiditeko (1).

BBB lehen sorospenen parte da. Honela definitzen dira **lehen sorospenak**: gaixotasun edota lesio akutu baten aurrean gauzatzen diren lehen ekintzak, zauritua laguntzera bideratuak (1, 3). Lehen sorospenen helburuak ondorengoak dira: bizitza bermatzea, sufrimendua arintzea, errekupeazioa sustatzea eta beste lesio edota gaixotasunen prebentzioa (3).

### 1.2. Osasun-hezkuntza proiektuaren justifikazioa

#### 1.2.1. Intentsitatea edo tamaina

Ospitalez kanpoko BBG osasun publikoko arazo bilakatu da, heriotza eragile nagusienetarikoa baita mundu mailan (4).

*European Registry of Cardiac arrest* proiektuaren arabera, ospitalez kanpoko BBG heriotzen hirugarren eragile nagusia da Europan (4), urtero ospitalez kanpoko 350.000 gelditze inguru eraginez (5). Pandemiaren aurretik, 2016. urtean zehazki, Eurostat-ek bildutako datuek Europan heriotzen kausa nagusia bihotzeko gaixotasun iskemikoak izan zirela adierazten dute (BBGren eragile nagusietako bat hain zuzen ere); gizonezkoetan intzidentzia ia emakumezkoen bikoitza izanik (6).

Datu hauek bat datoz *INEk* jasotakoekin, non 2020.urtean Espainian bihotzeko gaixotasun iskemikoak bigarren heriotza eragile bezala kokatzen diren, COVID-19aren atzetik; gizonezkoetan 18.123 heriotza eraginez eta emakumezkoetan aldiz 11.531 (7). Ospitalez kanpoko 24.500 gelditze baina gehiago gertatzen dira urtero Espainian (8, 9), trafikoko istripuek baino lau aldiz heriotza gehiago eraginez (1, 8). *CERCPk* dioenez, urtero ospitalera iritsi aurretik 30.000 pertsona inguru hiltzen dira BBGren ondorioz (10).

Eustat-ek argitaratutako datuek diotenez, 2016-2020 bitartean, 411 pertsona hil dira EAEn bihotzekoak jota, horietatik %55,5 gizonetakoak eta %44,5 berriz emakumezkoak. Adinari dagokionez, 50 urtetik aurrera BBGen kasuak nabarmen igotzen direla ikus daiteke; izan ere, 4 urtetan bihotzeko gehiago jazo dira 50-59 urte bitartekoetan (45 kasu) 49 urtetik beherakoetan baino (30 kasu). Adinak aurrera egin ahala, kasuen kopuruak ere gora egiten duela ikusi da (ikus 1. taula) (11).

1. taula: EAEn bihotz-gelditzeek eragindako heriotzak (11).

<b>EAE-N BIHOTZ-GELDITZEAK ERAGINDAKO HERIOTZAK (2016-2020)</b>															
<b>Adin-tartea</b>	<b>2016</b>			<b>2017</b>			<b>2018</b>			<b>2019</b>			<b>2020</b>		
	♀	♂	<b>G</b>	♀	♂	<b>G</b>	♀	♂	<b>G</b>	♀	♂	<b>G</b>	♀	♂	<b>G</b>
<b>1-19</b>	0	0	<b>0</b>	0	0	<b>0</b>	0	0	<b>0</b>	0	0	<b>0</b>	0	0	<b>0</b>
<b>20-29</b>	0	0	<b>0</b>	1	1	<b>2</b>	0	0	<b>0</b>	0	0	<b>0</b>	0	2	<b>2</b>
<b>30-39</b>	0	0	<b>0</b>	2	2	<b>4</b>	0	0	<b>0</b>	1	2	<b>3</b>	1	0	<b>1</b>
<b>40-49</b>	0	1	<b>1</b>	4	2	<b>6</b>	0	5	<b>5</b>	0	3	<b>3</b>	0	3	<b>3</b>
<b>50-59</b>	4	7	<b>11</b>	0	10	<b>10</b>	1	6	<b>7</b>	1	10	<b>11</b>	1	5	<b>6</b>
<b>60-69</b>	3	7	<b>10</b>	1	6	<b>7</b>	3	15	<b>18</b>	4	12	<b>16</b>	3	14	<b>17</b>
<b>70-79</b>	1	12	<b>13</b>	1	7	<b>8</b>	6	14	<b>20</b>	3	8	<b>11</b>	3	9	<b>12</b>
<b>80-89</b>	11	12	<b>23</b>	15	10	<b>25</b>	4	7	<b>11</b>	8	7	<b>15</b>	11	5	<b>16</b>
<b>≥ 90</b>	25	11	<b>36</b>	20	3	<b>23</b>	11	1	<b>12</b>	17	3	<b>20</b>	17	6	<b>23</b>
<b>GUZTIRA</b>	44	50	<b>94</b>	44	41	<b>85</b>	25	48	<b>73</b>	34	45	<b>79</b>	36	44	<b>80</b>

♀ = emakumezkoak ♂ = gizonetakoak G = guztira

Datuen arabera, ospitalez kanpoko gelditzeen gehiengoa, hots, %70 inguru, etxean, lanean edota bizitegi-guneetan gertatzen dira (4, 8, 12-14), erdia baina gehiago lekuko batek ikusiak izanik (8, 14). Hala eta guztiz ere, Espainian, lekukoek gelditzeen %15 baino gutxiagotan gauzatzen dute BBB (8, 15).

### 1.2.2. Garrantzia

Ospitalez kanpoko gelditzeek heriotza ugari eragiteaz gain, ondorio fisiko, psikologiko, ekonomiko, sozial eta familiar asko dakartzate.

BBGen ondorio kaltegarriena garuneko lesio hipoxiko-iskemiko larria da, odol-fluxu gabeziak eragina. Ondorio neurologiko ohikoena berriz, narriadura kognitiboa da; besteak beste, memoria, arreta eta prozesatze-abiadura kaltetuz (16).

Ondorio psikologikoei dagokienez, arazo emozionalak ohikoak izaten dira, batez ere BBGren ondorengo lehen asteetan. Ikerketek antsietate eta depresio kasuak ere ager daitezkeela adierazten dute, hurrenez hurren kasuen %15-24 eta %13-15ean gertatzen direlarik. Horrez gain, Trauma Osteko Estresaren Nahasmendua (TOEN) ere ikusi da kasu batzuetan (%16-28). Azken hau, BBG jasan duen pertsonaren familiartekoetan ere ager liteke. Suitzan egindako ikerketa baten arabera, TOEN familiartekoen %40ean ematen da eta BBGren lekuko izateak ondorio emozionalak jasateko arriskua areagotzen du ingurukoengan (16).

Hori gutxi balitz, paziente askok apatia eta motibazio eza aipatu dituzte BBGren ondorio gisa; eta baita interakzio sozial urriagoak izatea eta familiakoez edota aisialdiaz gutxiago gozatzea ere (16).

Bestetik, badira ondorio fisikoen eraginez, esate baterako, nekea eta mugikortasun-arazoak, lanera itzultzeko edota ohiko ekintzak gauzatzeko zailtasunak adierazten dituztenak ere; arazo ekonomikoak sortuz (16).

### 1.2.3. Urrakortasuna

Aurrez aipatutako ondorio kaltegarriek nahiz eragindako heriotzen datuek eta lekuko interbentzio-tasa baxuak agerian uzten dute esku-hartzearen beharra arazoa murrizteko.

Izan ere, BBG baten aurrean BBB ahalik eta azkarren hastea ezinbestekoa da bizirauteko aukera gehiago izateko eta lesio neurologikoak ekiditeko. Seigarren minututik aurrera bizirauteko aukerak %50era murrizten dira (2) eta hamargarren minututik aurrera aldiz, ia ezinezkoa da bizirik irtetea (17). Beste ikerketa batzuen arabera, BBB atzeratzen den minutu bakoitzeko bizirauteko aukerak %10 jaisten dira (1, 8-10, 13).

Ebidentziaren arabera, lekukoek BBB egiteak bizirauteko aukerak nabarmen areagotu ditzake; ikerketa batzuen esanetan aukerak bikoiztuz edota laukoiztuz (4, 8, 13, 14, 18) edota beste autore batzuen aburuz, hirukoiztuz (5, 16, 17). Zoritxarrez ordea, datuen arabera, Espainian 10 pertsonetatik 3k bakarrik dakite BBB egiten eta 5 biktimetatik bakarrak jasotzen du BBB (5).

Bestalde, Espainia mailan anbulantziak batuz beste 11 minutu behar izaten ditu BBG jazo den lekura iristeko (2, 13). Beraz, oso garrantzitsua da lekukoek BBB gauzatzea. Alde batetik, bizirauteko aukerak areagotzeko, eta bestetik, lesio neurologikoak saihesteko; baliteke anbulantzia iristerako beranduegi izatea eta (19). Orokorrean, pertsonak berezko zirkulazioa berreskuratu ahal izateko BBB lehenengo 4 minututan hasi behar dela aurreikusten da (8, 10).

Ebidentziak eskoletan lehen sorospinak irakastea populazio orokorraren zati handi bat hezteko metodo eraginkorra izan daitekeela dio (13, 20), eta baita lekukoek interbentzio-tasa hobetzeko ere. Ikerketek heziketa jaso duten pertsonak ospitalez kanpoko BBG baten aurrean BBB gauzatzeko aukera gehiago dituztela frogatu dute (18, 19). Beraz, eskoletan lehen sorospinak irakasteak epe luzera ospitalez kanpoko BBGen biziraupen-tasa hobetu dezake (12, 13).

Aztertutako artikuluen emaitzek eskoletan lehen sorospinak irakasteko Osasun-Hezkuntza Programak (OHezP) eraginkorrak direla erakutsi dute; interbentzioen ostean haurren ezagutza, jarrera eta gaitasunen hobekuntza nabarmena izan baita (ikus I. eranskina). Gainera, denborarekin informazioaren atxikipena murriztu egiten dela ikusi arren, epe motzera (hilabete), ertainera (4-6 hilabete) eta luzera (urtebete) ikasleek eskuratutako emaitzak interbentzioaren aurretik lortutakoak baino hobeagoak direla erakutsi dute hainbat ikerketek, bi emaitzen arteko desberdintasuna esanguratsua izanik (9, 15, 19-21).

#### 1.2.4. Kostua

Ospitalez kanpoko BBG batek osasun sistemari, familiari edota pazienteari suposa diezaiokeen kostu ekonomikoa handia da; besteak beste, osasun profesionalen eskaintako arreta, ospitaleko egonaldia, errehabilitazioa... ordaindu behar direla kontuan izanik (5).

Horrez gain, arazoaren intentsitatea eta tamaina aztertzean, BBG edozein adinetan gerta litekeela ikusi da, hau da, oraindik lanean diharduen pertsona orori gerta dakioke. Eustat-ek eskaintako datuetara itzuliz, 2016.urtetik 2020.urtera, BBGek lanerako adina zuten 143 lagunen heriotza eragin zuten; hots, heriotzen herena baino gehiago 20-69 urte bitarteko pertsonen dagokie (11). Beraz, pertsona gazteen biziari amaiera jarriz, BBGek gizartearen produktibitatea jaitsi eta ondorioz gure ekonomiari kalte handia eragin diezaiokete.

Aurrez aipatutakoa kontuan izanik, populazioa heziz honako egoera hauek murriztea lortzen bada, BBGek dakarten galera ekonomikoa ere murriztuko dela ondoriozta daiteke (5).

### 1.3. Arrisku-faktoreen analisisia

BBGren eragile posibleak edota arrisku-faktoreak 2 multzo nagusitan sailkatzen dira: jatorri kardiakoa dutenak eta bestelako jatorria dutenak (1, 22).

Hona hemen BBG eragin dezaketen egoera batzuk:

2. taula: BBGen arrisku-faktoreak edo eragileak (1, 22).

KARDIAKOAK	EZ KARDIAKOAK
<ul style="list-style-type: none"><li>- Bihotzeko gaixotasun iskemikoak (Miokardioko Infartu Akutua (MIA))</li><li>- Arteria koronarioen gaixotasunak</li><li>- Arritmiak</li><li>- Miokardiopatiak</li><li>- Balbulopatiak</li><li>- Sortzetiko kardiopatia</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Hipobolemia (hemorragiak)</li><li>- Asfixia (uretan itotzea, Gorputz Arrotzak Arnasbideetan Eragindako Buxadura (GAAB))</li><li>- Hipoxia (pneumonia, asma, Biriketako Gaixotasun Buxatzaile kronikoa (BGBK), biriketako enbolia)</li><li>- Hipogluzemia</li><li>- Anafilaxia</li><li>- Drogen gaindosia edo intoxikazioa</li></ul>

Kausa ez kardiakoen artean, badira egunerokotasunean ohikoak izan daitezkeen egoerak, hala nola, hemorragiak, GAAB, asma-krisia, hipogluzemia eta anafilaxia.

Hori dela eta, BBB eta Kanpoko Desfibriladore Automatikoaren (KDA) erabilera erakustez gain, egoera hauek kudeatzen irakastea ere garrantzizkotzat jo da; arazoa ahalik eta azkarren identifikatu eta aurre egiten jakiteko, modu horretan BBG posibleak saihestuz.

## 2. HELBURUAK

### 2.1. Helburu nagusia

Udarregi ikastolako Lehen Hezkuntzako (LH) 5-6. mailako ikasleei lehen sorospenak irakasteko OHezP bat diseinatzea.

### 2.2. Bigarren mailako helburuak

- Estrategia metodologikoak deskribatzea.
- Xede-taldeak lortu beharreko helburu pedagogiko orokor eta zehatzak formulatzea.
- OHezP-ren hezkuntza-edukiak zehaztea.
- Beharrezko antolakuntza, material eta giza-baliabideak identifikatzea.
- OHezP-ren emaitza, prozedura, egitura eta baliabideen ebaluazio diseinua egitea.

### 3. METODOLOGIA

OHezP diseinatu ahal izateko, gaiaren inguruko bilaketa bibliografikoa gauzatu da 2021eko azaroa eta 2022ko otsaila bitartean, jarraian aurkezten den PIO egituraren oinarrituz:

- P (pazientea edo taldea): 10-12 urteko ikasleak
- I (interbentzioa edo esku-hartzea): lehen sorospenen inguruko osasun-heziketa
- O (emaitzak): lehen sorospenen inguruko ezagutza areagotzea

Jarraian, PIO egituraren atal bakoitzari dagozkion deskriptoreak (DeCS eta MeSH) eta terminologia librea ageri dira (ikus 3. taula).

**3. taula:** PIO egitura jarraituz proposatutako deskriptoreak eta sinonimoak. Iturria: datu propioak.

PIO EGITURA	LENGOAIA KONTROLATUA		LENGOAIA NATURALA
	MeSH	DeCS	
<b>P</b>	-Child	-Niño	-Children -Primary school/Primaria -School/Escuela
<b>I</b>	-First Aid -Cardiopulmonary Resuscitation -Heimlich Maneuver -Defibrillators -Health Education	-Primeros Auxilios -Reanimación Cardiopulmonar -Maniobra de Heimlich -Desfibriladores -Educación en Salud	-Reanimación cardiorrespiratoria -Heimlich -Automated external defibrillator/ Desfibrilador externo automático -Education/Educación -Training/Formación
<b>O</b>	-Health Knowledge, Attitudes, Practice	-Conocimientos, Actitudes y Práctica en Salud	-Knowledge/Conocimientos

Taulan zehaztutako hitzak AND eta OR operatzaile boolearrak erabiliz konbinatuak izan dira bilaketa-katea osatzeko. Saiakera anitz egin ostean (ikus II, III eta IV. eranskinak), behin-betiko bilaketa-katea osatu da (ikus 4. taula) eta datu-base desberdinetan (hala nola, PubMed, BVS eta Dialnet) bilaketak egiteko erabilia izan da.



4. taula: behin-betiko bilaketa katea eta lortutako emaitzak. Iturria: datu propioak.

DATU BASEA	BEHIN-BETIKO BILAKETA KATEA	GUZTIRA	IRAGAZKIEN ONDOREN	LANERAKO HAUTATUAK
PubMed	((child*[Title/Abstract] OR (school[Title/Abstract])) AND (("first aid"[MeSH Terms] OR ("cardiopulmonary resuscitation"[MeSH Terms] OR ("heimlich maneuver"[MeSH Terms] OR (defibrillators[MeSH Terms] OR ("automated external defibrillator"[Title/Abstract])) AND (("health education"[MeSH Terms] OR (education[Title/Abstract] OR (training[Title/Abstract])) AND (("health knowledge, attitudes, practice"[MeSH Terms] OR (knowledge[Title/Abstract]))	310	124	8
BVS	((Niño* OR (Escuela)) AND ((mh:("Primeros Auxilios")) OR (mh:("Reanimación Cardiopulmonar")) OR ("Reanimación cardiorrespiratoria") OR (mh:("Maniobra de Heimlich")) OR (mh:(Desfibriladores)) OR ("Desfibrilador externo automático")) AND ((mh:("Educación en Salud")) OR (Educación) OR (Formación)) AND ((mh:("Conocimientos, Actitudes y Práctica en Salud")) OR (Conocimiento*))	190	78	7
Dialnet	((Niño* OR (Escuela)) AND (("Primeros auxilios") OR ("Reanimación cardiopulmonar") OR ("Reanimación cardiorrespiratoria") OR (Heimlich) OR (Desfibrilador)) AND (("Educación para la salud") OR (Educación) OR (Formación)) AND (Conocimiento*))	41	29	6

Bilaketari hizkuntzaren eta urteen iragazkiak aplikatu zaizkio, artikulua ingelesera edota gaztelaniara eta azken 5 urteetara mugatuz (2016-2021).

Azkenik, artikulua hautatuak izateko barneratze eta kanporatze-irizpideak zehaztu dira. Barneratze-irizpideak diana-taldearen barruan 10-12 urteko ikasleak egotea (diana-taldearen barnean 10-11 edota 11-12 urteko haurrak soilik kontuan hartzen dituzten OHezP-ak ere barneratuak izan dira (12, 14, 17, 23), nahiz eta lan honen diana-taldearen adin-tartearen zati bati soilik egin erreferentzia) eta artikulua doan eskuragarri egotea izan dira.

Kanporatze-irizpideak berriz, diana-taldearen adin-tartea ez zehaztea edo 10 urtetik beherako edota 12 urtetik gorako haurrak soilik kontuan izatea; interbentzioa irakasleei, zaintzaileei, gurasoei edo osasun arloko ikasle edota profesionali zuzendua izatea; lehen sorospenen inguruko umeen ezagutza-maila aztertzea baina interbentziorik ez egitea; interbentzioaren ostean lortutako emaitzak ez azaltzea edota haurren asebetetze-maila bakarrik aztertzea eta lehen laguntza psikologikoa soilik lantzea izan dira.

Lanerako aukeratuak izan diren 21 artikuluetatik 5 errepikatu direnez, baztertuak izan dira. Beraz, guztira datu-baseetako 16 artikulua erabili dira lana jorratzeko (ikus I. eta V. eranskinak).

Datu-baseez gain, datu-estatistikoak lortzeko Eurostat, *INE* eta Eustat institutu estatistikoetara jo da. Horrez gain, BBBn aditua den *European Resuscitation Council* (ERC) erakundearen web-orria ere bisitatu da. Azkenik, EHU-ko liburutegitik eskuratutako liburu bat ere erabili da.

#### **4. PLANGINTZA**

##### **4.1. Xede-taldearen aukeraketa eta justifikazioa**

OHezP honen xede-taldea Usurbilgo Udarregi ikastolako LH 5 eta 6. mailako ikasleek osatzen dute, hots, 10-12 urte bitarteko haurrek.

Eskola lehen sorospenak irakasteko eremu estrategikotzat jo da batik bat adin horretako populazioaren ia %100ra iristeko aukera eskaintzen duelako (14). Izan ere, LH derrigorrezkoa izateak haurren asistentzia bermatzen du (8, 10, 14). Gainera, lehen sorospenen kurtsuak eskoletan ezartzeak barrera sozioekonomikoak gainditzea ahalbidetzen du (10, 12), baliabide gutxien dituzten familietako umeentzat ere eskuragarri eginez.

Eskoletan lehen sorospenen inguruko osasun-hezkuntza sustatzeko, hainbat erakundek *Kids Save Lives* programa sortu zuten, hala nola, *European Patient Safety Foundation* (EuPSF), *European Resuscitation Council* (ERC), *International Liaison Committee on Resuscitation* (ILCOR) eta *World Federation of Societies of Anaesthesiologists* (WFSA); 2015ean Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) babestua izan zena (2, 13, 18, 21). *American Heart Association* (AHA) erakundea ere eskoletan BBB erakustearen aldekoa da (2, 9, 20).

Adinari dagokionez, ebidentziak orokorrean konpresio eraginkorrak egitea 13-14 urtetik gorako haurrek soilik lortzen dutela dio (20), konpresio torazikoen sakontasunean adinak, pisuak, altuerak eta Gorputz-Masaren Indizeak (GMI) eragin zuzena baitute; sakontasun egokia lortzeko 50Kg inguru pisatzea beharrezkoa izanik (13-15).

BBB irakasten hasteko adin egokienak eztabaida ugari sortu dituen arren, aditu askoren ustetan ez da atzeratu behar, hots, heziketa ahalik eta azkarren hastea gomendatzen dute (17), 10-12 adin tartea egokituz joz (9, 10, 13-15, 18, 21, 24); fisikoki konpresioak modu egokian gauzatzeko ahalmena izan ez arren, ezagutzak garatzeko gai baitira (13, 15). Horrez gain, Europako *Kids Save Lives* taldeak osasun-hezkuntza 12 urterekin edo lehenago hasi behar dela dio (2, 14), eta ILCOR eta AHA erakundeek berriz, BBBrekin LHn hastea aholkatzen dute (13). 2001an Ulsteinen burututako konferentzian bertako parte-hartzaile guztiek BBB heziketarekin LHn hastea gomendatu zuten (10).

Adin tarte horretako haurrek lehen sorospenak erakustea errazten duten hainbat ezaugarri dituzte amankomunean:

- Ikasteko gaitasun handia (8, 10).
- Garapen kognitibo eta trebetasun psikomotor egokiak (10).
- Motibazioa, jakin-mina eta gauza berriak ikasteko gogoia (9, 10, 17, 19).
- Ikasitako ezagutzak eta lortutako gaitasunak denbora luzean mantentzeko ahalmena (8, 10).
- Malgutasuna: ohiturak edota ekintzak erraztasun handiagoz aldatzea ahalbidetzen duena (10).
- Beharrezkoa izango balitz ikasitakoa praktikan jartzeko prestasun handiagoa (9, 10).

Azkenik, aipatu beharra dago umeek ingurukoei, esate baterako, familiakoei edota lagunei, ikasitakoa irakasteko prestasuna agertzen dutela; beraz, "biderkatzaile" funtzioa bete dezakete, lehen sorospen inguruko ezagutzak populazioaren zati handi batera zabaltzea lortuz (10, 12, 17, 19).

#### 4.1.1. Xede-taldearen ezagutzen, jarrerren, gaitasunen eta itxaropenen identifikazioa

Interbentzioaren aurretik, ikasleek jorratuko diren gaien inguruan duten ezagutza-maila, lehen sorospenak gauzatzeko dituzten gaitasunak eta OHezP-tik espero dutena aztertuko da, programaren edukiak euren beharretara ahalik eta gehien egokitzeko.

Horretarako, 1. saioan bete beharko duten galdetegi bat garatu da (ikus VI. eranskina). Aldi berean, galdetegi horretako emaitzak interbentzioaren ostean lortutako emaitzekin alderatzeko erabiliko dira, programaren eraginkortasuna baloratzeko. Galdetegia guztiz anonimoa da, ikasleen konfidentzialtasuna babesteko.

## **4.2. Xede-taldeak lortu behar dituen helburu pedagogikoak**

### 4.2.1. Orokorra

Usurbilgo Udarregi ikastolako LH 5-6. mailako ikasleek lehen sorospenen inguruko ezagutzak, gaitasunak eta jarrera egokiak garatzea.

### 4.2.2. Zehatzak

Usurbilgo Udarregi ikastolako LH 5-6. mailako ikasleek ondorengo lortuko dute:

- 1) Bihotz-Biriketako Gelditzea zer den, zer arrisku faktorek eragin dezaketen eta zer ondorio eragiten dituen adieraztea [1. saioaren amaierarako](#) (EZAGUTZAZKOA).
- 2) Biziraupen-katearen katebegiak dagokion hurrenkeran izendatzea [1. saioaren amaierarako](#) (EZAGUTZAZKOA).
- 3) Larrialdietako telefonoa zein den adieraztea [1. saioaren amaierarako](#) (EZAGUTZAZKOA).
- 4) Hipogluzemiaren zeinu eta sintomak zein diren eta nola jokatu behar den azaltzea [2. saioaren amaierarako](#) (EZAGUTZAZKOA).
- 5) Hipogluzemia bati aurre egiteko eta glukagoia administratzeko gaitasuna erakustea [2. saioaren amaierarako](#) (GAITASUNEZKOA).
- 6) Anafilaxiaren zeinu eta sintomak zein diren eta nola jokatu behar den adieraztea [2. saioaren amaierarako](#) (EZAGUTZAZKOA).
- 7) Anafilaxia egoera bati aurre egiteko eta adrenalina administratzeko gaitasuna erakustea [2. saioaren amaierarako](#) (GAITASUNEZKOA).
- 8) Asma-krisi baten zeinu eta sintomak zein diren eta nola jokatu behar den azaltzea [2. saioaren amaierarako](#) (EZAGUTZAZKOA).
- 9) Asma-krisi bati aurre egiteko eta inhalagailuak erabiltzeko gaitasuna erakustea [2. saioaren amaierarako](#) (GAITASUNEZKOA).
- 10) Hemorragia geratzeko presio egokia egiteko gaitasuna erakustea [2. saioaren amaierarako](#) (GAITASUNEZKOA).
- 11) Helduen Oinarrizko Bizi-Euskarriaren (OBE) jarduera-sekuentzia azaltzea [3. saioaren amaierarako](#) (EZAGUTZAZKOA).
- 12) Pertsonak ea konorterik duen eta ea arnasten duen aztertuz, BBG identifikatzeko gaitasuna erakustea [3. saioaren amaierarako](#) (GAITASUNEZKOA).

- 13) Segurtasuneko Albo-Jarrera (SAJ) zer kasutan erabili behar den azaltzea [3. saioaren amaierarako](#) (EZAGUTZAZKOA).
- 14) Pertsona bat SAJ ezartzeko gaitasuna erakustea [3. saioaren amaierarako](#) (GAITASUNEZKOA).
- 15) Kopeta-kokotsa maniobra gauzatzeko gaitasuna erakustea [3. saioaren amaierarako](#) (GAITASUNEZKOA).
- 16) Aireztapen eraginkorrak burutzeko gaitasuna erakustea [3. saioaren amaierarako](#) (GAITASUNEZKOA).
- 17) Konpresio torazikoei dagokionez, eskuen kokapena, gorputz-jarrera, erritmoa eta sakonera egokia zein diren adieraztea [3. saioaren amaierarako](#) (EZAGUTZAZKOA).
- \*Duten adina eta pisua dela medio, toraxa 5-6 cm konprimatzeko gaitasun fisikorik ez dutenez, ez da konpresio torazikoak sakontasun egokiarekin gauzatzeko gaitasuna ebaluatuko.*
- 18) Konpresio torazikoen eta aireztapenen artean mantendu beharreko harremana zein den izendatzea [3. saioaren amaierarako](#) (EZAGUTZAZKOA).
- 19) Kanpoko Desfibriladore Automatikoa (KDA) erabiltzeko gaitasuna erakustea [3. saioaren amaierarako](#) (GAITASUNEZKOA).
- 20) GAABren ondorioz pertsonak pairatu ditzakeen zeinu eta sintomak zein diren azaltzea [3. saioaren amaierarako](#) (EZAGUTZAZKOA).
- 21) Buxadura ertaina edo larria den identifikatzeko gaitasuna erakustea [3. saioaren amaierarako](#) (GAITASUNEZKOA).
- 22) Heimlich maniobra gauzatzeko gaitasuna erakustea [3. saioaren amaierarako](#) (GAITASUNEZKOA).
- 23) Odoljario bat duen pertsona bati laguntzeko jarrera erakustea [interbentzioaren ostean eta ikastaroa amaitu eta 6 hilabetera](#) (JARRERAZKOA).
- 24) Hipogluzemia bat jasaten ari den pertsona bati laguntzeko jarrera erakustea [interbentzioaren ostean eta ikastaroa amaitu eta 6 hilabetera](#) (JARRERAZKOA).
- 25) Erreakzio alergiko bat izan duen pertsona bati laguntzeko jarrera erakustea [interbentzioaren ostean eta ikastaroa amaitu eta 6 hilabetera](#) (JARRERAZKOA).
- 26) Asma-krisi bat jasaten ari den pertsona bati laguntzeko jarrera erakustea [interbentzioaren ostean eta ikastaroa amaitu eta 6 hilabetera](#) (JARRERAZKOA).
- 27) Jaki edo objektu arrotz baten ondorioz arnasbidea buxatuta duen pertsona bati laguntzeko jarrera erakustea [interbentzioaren ostean eta ikastaroa amaitu eta 6 hilabetera](#) (JARRERAZKOA).
- 28) BBG jasan duen pertsona bati laguntzeko jarrera erakustea [interbentzioaren ostean eta ikastaroa amaitu eta 6 hilabetera](#) (JARRERAZKOA).

### 4.3. Hezkuntza-edukiak eta jardueren programazioa

Lehenik eta behin, Udarregi ikastolako zuzendariarekin bilera bat hitzartuko da OHezP-ren nondik norakoak azaltzeko eta interbentzioa ikastolan burutzeko baimena eskatzeko, lehen sorospenen inguruko heziketaren garrantzia azpimarratuz eta lortu nahi diren helburuak eta espero diren emaitzak zeintzuk diren adieraziz.

Zuzendariaren baimena lortuz gero, 5 eta 6. mailako ikasleen gurasoei informazio-zirkular bana bidaliko zaie euren seme-alabek proiektuan parte hartzeko baimen-informatua eskatuz. Legez haurren baimenak indarrik eduki ez arren, ikasleei ere proiektuaren parte-hartzaile izateko eta euren datuak, betiere anonimotasuna eta konfidentzialtasuna mantenduz, interbentzioaren eraginkortasuna ebaluatzeko erabiliak izateko baimena eskatuko zaie.

Interbentzioaren aurretik ikasleek galdetegi bat beteko dute gaiaren inguruan dituzten aurretiko ezagutzak, gaitasunak eta jarrerak aztertzeko eta proiektuaz espero dutena azaltzeko. Interbentzioaren ostean eta handik 6 hilabetetara ikasleek berriro erantzungo dute galdetegia, interbentzioaren eraginkortasuna ebaluatzeko.

OHezP 4. saiotan gauzatuko da, zeinak 2 astetan zehar banatuko diren, eskola-orduetan. Azterketa denboraldiak saihestu nahi dira, beraz, interbentzioa egiteko ikasturte hasiera proposatzea erabaki da, esate baterako, urriko lehen bi asteak. Saio bakoitza 2 ordukoa izango da eta tartean jolas-ordua utziko da, saioak astunegiak suertatu ez daitezen (ikus VII. eranskina). Taldeak ikasgelaka banatuko dira, batez besteko ikasle kopurua 20-25 izango dela aurreikusirik.

Jarraian, saio bakoitzean landuko diren gaiak eta dagozkien helburuak, lekua, osasun-agentek, baliabideak eta ekintza bakoitzaren azalpena eta iraupena azaltzen dira.

#### 4.3.1. 1.saioa

##### **Hezkuntza-edukien laburpena:**

##### 1. GAIA: Bihotz-Biriketako Gelditzea (BBG)

BBG zer den, eragileak edota arrisku-faktoreak zein diren eta pazientearengan nahiz ingurukoengan eragiten dituen ondorioak landuko dira (*1. helburura bideratua*).

##### 2. GAIA: Biziraupen-katea

Biziraupen-katea zer den eta zein diren haren katebegiak, hots, BBG baten aurrean jarraitu beharreko pausoak, landuko da (*2 eta 3. helburuetara bideratua*).

5. taula: 1. saioaren antolaketa. Iturria: datu propioak.

BALIABIDE MATERIALAK		OSASUN-AGENTEAK	LEKUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Baloï biguna</li> <li>- Arbelean marrazteko errotulagailua</li> <li>- Ordenagailua eta proiektorea</li> <li>- Irudiak</li> <li>- Zaku txikia</li> </ul>		Erizaina	Ikasgela
GAIA	TEKNIKA ETA GARAPENA		IRAUPENA
HARRERA	<p><b>Elkartze-teknikak:</b> Hasteko, erizainak taldeari harrera egingo dio eta bere burua aurkeztuko du, jarraian OHezP-ren azalpen labur bat eginez.</p> <p>Ondoren, taldekide bakoitzak bere burua aurkeztuko du eta programa honekin ikastea gustatuko litzaiokeen zerbait aipatuko du. Horretarako, baloi bigun bat eramango da eta baloia elkarri pasako diote, baloia duenak hitz egin dezan. Modu horretan hitz egiteko txandak errespetatuko dira eta lotsatiagoak direnak hitz egitera animatuko dira.</p>		20 min
GALDETEGIA	<p><b>Ikerketa teknikak: galdetegia</b> Ikasleek banaka galdetegi bat erantzungo dute, interbentzioaren aurretik lehen sorospenen inguruan dituzten ezagutzak ebaluatzeko (ikus VI. eranskina).</p>		40 min
ATSEDENA (30 min)			
1.GAIA	<p><b>Esposizio teknikak: parte hartutako lezioa</b> Ikasleei "Bihotz-Biriketako Gelditzea" esatean burura etortzen zaiena azaltzeko eskatuko zaie eta ateratako ideiak arbelean idatziko dira. Gero, taldeak aurrez dituen ezagutzak osatzeko azalpenak emango dira <i>Power Point</i> baten bitartez (ikus VIII. eranskina), BBG zer den azalduz, eragile posibleak aipatuz eta zer ondorio ekar ditzakeen adieraziz. Amaieran, ikasleen zalantzak argituko dira.</p>		20 min
	<p><b>Ikerketa-teknikak: "fotopalabra"</b> Jarraian, boluntarioak eskatuko dira eskua zakuan sartu eta paper bat ateratzeko. Zakuan irudi desberdinak egongo dira eta irudi bakoitzak arrisku-faktore edo ondorioren bat irudikatuko du (ikus IX. eranskina). Ikasleak irudia gainontzeko ikaskideei erakutsiko die eta elkarlanean irudian agertzen dena zer den esan eta arrisku-faktoreen edo ondorioen taldean sailkatu beharko dute.</p>		10 min
2.GAIA	<p><b>Esposizio teknikak: bideoa eztabaidarekin</b> Biziraupen-katearen katebegiak azalduko dira bideo baten bitartez eta amaieran ikusitakoaren inguruan eztabaidatuko da zalantzak argituz (25).</p>		10 min
	<p><b>Jolasa:</b> Bideoan ikusitakoa lantzeko jolas bat planteatuko da. Ikasle bakoitzari irudi bat emango zaio, biziraupen-katearen katebegi bati dagokiona (ikus X. eranskina). Ikasleek ezingo diote irudia gainontzeko ikasleei erakutsi. Jokoaren helburua launakako taldeak osatzea izango da, taldekide bakoitzak katebegi bat irudikatuz eta elkarri eskua emanez katebegiak dagokion hurrenkeran ordenatuz. Horretarako, mimikaz baliatu beharko dute, egokitu zaien katebegia antzeztuz. Jokoa amaitu arte ezingo dute euren artean hitz egin. Biziraupen-katea azkarren osatzen duen taldeak irabaziko du jokoa.</p>		20 min

#### 4.3.2. 2.saioa

##### **Hezkuntza-edukien laburpena:**

##### 3. GAIA: Hipogluzemia

Hipogluzemia zer den, zein kasutan gerta litekeen, agertzen diren zeinu eta sintomak eta hipogluzemiari nola aurre egin irakatsiko da (4, 5 eta 24. *helburuetara bideratua*).

##### 4. GAIA: Asma

Asma-krisia zer den, agertzen diren zeinu eta sintomak eta krisia jasaten ari den pertsonari nola lagundu irakatsiko da (8, 9 eta 26. *helburuetara bideratua*).

##### 5. GAIA: Anafilaxia

Erreakzio anafilaktikoa zer den, agertzen diren zeinu eta sintomak eta egoera honen aurrean nola jokatu irakatsiko da (6, 7 eta 25. *helburuetara bideratua*).

##### 6. GAIA: Hemorragiak

Odoljarioen aurrean nola jokatu erakutsiko da, hemorragiak geratzeko presio zuzena egiten irakatsiz (10 eta 23. *helburuetara bideratua*).



6. taula: 2. saioaren antolaketa. Iturria: datu propioak.

BALIABIDE MATERIALAK		OSASUN-AGENTEAK	LEKUA
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordenagailua eta proiektorea</li> <li>- Ordenagailu eramangarriak (ikasle bakoitzak bana du, ikastolak utzia)</li> <li>- Glukagoia</li> <li>- Inhalagailuak eta kamera</li> <li>- Adrenalina</li> <li>- Aposituak eta benda</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erizaina</li> <li>- AGD-ko kidea</li> <li>- ASMABI-ko kidea</li> </ul>	Ikasgela
GAIA	TEKNIKA ETA GARAPENA		IRAUPENA
3.GAIA	<p><b><u>Hausnarketa teknikak: kasu baten inguruan</u></b> Gipuzkoako Diabetes Elkarteko (AGD) kide bat gonbidatuko da saio honetarako eta ikasleei hipogluzemia baten esperientzia pertsonala kontatzeko eskatuko zaio. Jarraian, ikasleek egoera horretan nola jokatu luketen esan beharko dute. Azkenik, AGD-ko kideak hipogluzemia baten zeinu eta sintomak zein diren eta horrelako egoera baten aurrean nola jokatu behar den azalduko die hurrei (glukagoia administratzen ere irakatsiko zaie).</p>		20 min
4.GAIA	<p><b><u>Hausnarketa teknikak: kasu baten inguruan</u></b> ASMABI-ko kide bat gonbidatuko da saio honetarako eta ikasleei asma-krisi baten esperientzia pertsonala kontatzeko eskatuko zaio. Jarraian, ikasleek egoera horretan nola jokatu luketen esan beharko dute. Azkenik, ASMABI-ko kideak asma-krisialdi baten zeinu eta sintomak zein diren eta horrelako egoera baten aurrean nola jokatu behar den azalduko die hurrei (inhalagailuak eta kamera nola erabili ere irakatsiko zaie).</p>		20 min
5.GAIA	<p><b><u>Esposizio teknikak: irakurketa + bideoa eztabaidarekin</u></b> Banaka erreazio anafilaktikoaren inguruko istorio labur bat irakurriko dute (ikus XI. eranskina). Ondoren, 4-5 pertsonako taldeetan bildu eta bertan dauden galderak erantzun dituzte. Jarraian, talde bakoitzean bozeramaile bat izendatuko da eta bozeramaileek bateratze-lana egingo dute, eztabaida talde handira pasaz. Azkenik, anafilaxiaren kasuaren inguruko bideo bat ikusi eta zalantzak argituko dira (26). Horrez gain, adrenalina nola administratu ere irakatsiko zaie.</p>		20 min
<b>ATSEDENA (30 min)</b>			
6.GAIA	<p><b><u>Esposizio teknikak: bideoa eztabaidarekin</u></b> Hemorragia mota desberdinak azaldu eta odoljario bat geratzeko presio zuzena egiten irakatsiko zaie ikasleei bideo baten bitartez (27). Bideoaren amaieran, zalantzak argituko dira taldean.</p>		10 min
